muniversitas
MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA
Mondragon Unibertsitatea
52. ZENBAKIA. 2022



ELKARRIZKETA | **Modesto Mateos** Mondragon Unibertsitatearen Nazioarteko arduraduna

# “Mundura irekitako unibertsitate globala izan nahi dugu”

Zenbakia BI ELETARA
Nº BILINGÜE

Zenbakia EUSKARAZ

Ejemplar en CASTELLANO

VITALDENT



Promoción exclusiva Mondragon Unibertsitatea

20% de descuento en tu tratamiento

ARRASATE-MONDRAGÓN
BEASAIN
BARAKALDO
BASAURI
BERMEO
BILBAO
DURANGO
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
EIBAR
GALDAKAO
GETXO
IRUN
PORTUGALETE
ERRENTERIA
SANTURTZI
VITORIA-GASTEIZ

RPS: 255-19

## Crecer de manera global

Durante 25 años Mondragon Unibertsitatea ha experimentado un crecimiento a varios niveles, también en la esfera internacional. Precisamente este ha sido el ámbito de trabajo de Modesto Mateos durante los últimos seis años, y hemos repasado con él las principales acciones que han llevado a la organización a convertirse en un referente.



## AURKIBIDEA

03 Editoriala
04 Berriak
10 Erreportajea
13 Iritzia
14 Elkarrizketa
16 Unibertsitatea &enpresa
20 Komunitatea
23 Agenda

## Una apertura especial

La ceremonia de apertura del curso académico 2022-2023 tuvo lugar en Bilbao AS Fabrik , el nuevo campus ubicado en la isla de Zorrotzaurre de Bilbao. El nuevo periodo se ha puesto en marcha con un 9% más de estudiantes matriculados en el cómputo global de la universidad, contando con un alumnado total de 6.700 personas, y con 18 nuevas titulaciones. Además, se ha dado inicio a un curso que será sin duda especial, ya que la entidad celebra el 25 aniversario de su creación, y a lo largo del curso contará con varios eventos referidos a la efeméride.

## Urteurreneko kontzertu gogoangarria

Asmatu du Mondragon Unibertsitateak 25. urteurrena ospatzeko antolatutako kontzertuan, bere publikoarekin, gazteekin, zuzen-zuzenean konektatzen. Gau ederra izan zen hasieratik bukaeraraino, eta Mugi Panderoak, Skakeitan-ek zein Zetak taldeak lepo bete zuten Iturripe belaunaldi desberdinetako ikusleez eta emozioz.



# TXOKO TXIKI BAT MUNDUAN

Munduko mapa hartuz gero, Euskal Herriak bertan duen tamaina oso txikia duela ikusiko dugu. Agian pentsa dezakegu geografikoki ondo kokatuta gaudela, edo gure kultura zein historiak munduan zehar ezagunak izaten lagundu gaituztela. Baina objetiboki, oso txikiak gara munduaren handitasunean.

Hala ere, badago hazteko aukera, hazkunde jasangarri bat bizitzeko aukerak, eta nazioarteko aitortza bada aukera hauetako bat. Horretan ari da hain zuzen azken urteotan Mondragon Unibertsitatea, nazioartean ezaguna izateko akzio planak garatzen. Eta bistan emaitzak iristen direla.

*Azken urteotan Mondragon Unibertsitatea, nazioartean ezaguna izateko akzio planak garatzen ari da*

Mondragon Unibertsitatea erreferentziazko erakundea bilakatu da munduan zehar, eta zilegi da hori baieztatzea, kanpokoek horrela aitortzen dutelako.

Zenbaki honetan hauen esperientziak ezagutu nahi izan ditugu. Zergatik aukeratzen dute nazioarteko ikasleek Mondragon Unibertsitatea beraien formazio aukera bezala? Zein da gurera datozenean duten motibazioa? Honi buruz esperientzia ezberdinak jaso ditugu, Mondragon Unibertsitateko fakultate ezberdinetara etorritako pertsonen esperientziak, jatorri eta interes ezberdinak dituztenak. Mexiko, Peru edo Suitza bezalako herrialde handietatik etorrita, zer du gure txoko honek eskaintzeko?

Zerbait baduela bistan da, azken urteetako tendentziari jarraituz Mondragon Unibertsitatearen presentzia nazioartean gero eta nabarmenagoa baita. Ikasleen mugikortasunean, ikerketa arloan edo enpresen arteko kolaborazioetan. Asko dira eragiteko esparruak, eta bakoitzaren arabera eratuko dira publiko ezberdinak, Mondragon Unibertsitatearen sarearekin bat egin dutenak.

Dena den, oraindik badago lana egiteke. Besteak beste nazioartean erakundearekin loturiko komunitateak hazteko aukera nabarmenak ditu, aliantza berriak sortu eta proiektu gehiago eskuratuz besteak beste. Beraz, ondo eginaz kontziente izanik, hobekuntza alorretan zentratu beharra dago, txoko txiki honetatik mundua mugitzen jarraituz.

**mu**niversitas
muniversitas
(23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa) | Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93
E-posta: info@mondragon.edu | Koordinatzailea: Arteman Komunikazioa
Erredakzio kontseilua: Amaia Aizpuru, Goio Arana, Susana Azpilikueta, Haizea Legorburu, Patricia Gutiérrez eta Idoia Peñakoba
Tirada 7.560 ale | Lege gordailua SS-1360/05 | Diseinua eta publizitatea: Arteman Komunikazioa
Argazkiak: Arteman Komunikazioa | Moldiztegia: Gertu.

GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON
LABORAL kutxa



Bilbao AS Fabrik campusean egin zen ekitaldian ordezkari ezberdinek hartu zuten parte.

# 2022-2023 ikasturtearen hasiera ekitaldia

BILBOKO AS FABRIK CAMPUSEAN EGINDAKO EKITALDIAK EMAN DIO HASIERA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 25. URTEURRENEKO IKASTURTEARI. AURTEN, 6.700 IKASLE BAINO GEHIAGO MATRIKULATU DIRA IKASKETA OFIZIALETAN, EUSKADIKO CAMPUSETAN AURREKO IKASTURTEAREKIN ALDERATUZ %9KO HAZKUNDEA IZANIK.

Mondragon Unibertsitateak lehen aldiz egin zuen kurtso hasierako ekitaldia Bizkaian, Bilboko As Fabrik campusean, 25. urteurrena ospatuko duen ikasturteari hasiera emateko. Bertan izan ziren Vicente Atxa errektorea, Iñigo Urkullu lehendakaria, Idoia Peñacoba Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusia, eta José María Canales Goi Eskola Politeknikoko ikertzaile eta irakaslea, irekitze-hitzaldia eman zuena.

Ekitaldian, Vicente Atxak azpimarratu izan zuen unibertsitatea etorkizunera begira dagoela, orain arteko ibilbidean izandako ardatzak argi izanik; ikerketa, irakaskuntza eta transferentzia. Zentzu honetan, ikasturte berriaren hasieran unibertsitateak goi-mailako hezkuntzarekin, ikasleekin eta gizartearekin duen konpromisoa berritua geratu zen.

## Hazkunde jarraitua

Ikasturte honetan, Mondragon Unibertsitateak 18 titulazio berri ditu, 11 dualak izanik; eta 19 unibertsitate master, 7 dualak. Matrikulazioei dagokionez, 6.700 ikasle baino gehiago ditu ikasketa ofizialetan (gradu, master eta doktoretza-ikastaroetan) matrikulatuta, eta, horietatik, 2.200 berriak dira. Ikasle berri horietatik, 1.700 graduko ikasle berriak dira; hots, aurreko ikasturtean baino %9 gehiago Euskadiko campusetan.

## Aurreko ikasturteko memoria



Idoia Peñacoba Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusiak 2021-2022 ikasturteko txosten akademikoa aurkeztu zuen. Peñacobak nabarmendu zuenez, Mondragon Unibertsitateak guztira 17 gradu-titulu (10 dual) eta 15 unibertsitate-master (7 dual) eskaini zituen, bai eta lau doktoretza-programa eta hainbat graduondoko, titulu propio eta aditu-ikastaro ere, unibertsitatearen zortzi ezagutza-arloetan. Gradu, master eta doktoretza-ikastaroetako ikasleei dagokienez, 6.326 izan ziren 2021-2022 ikasturtean, eta titulu propioetako beste 840.

Ikasleen mugikortasuna esponentzialki handitu zen COVID-19aren ondoren mugak irekitzean. Hala, 1.645 ikasle joan dira atzerrira, aurreko ikasturtean baino %45 gehiago, eta Mondragon Unibertsitateak nazioarteko 709 ikasle jaso zituen, aurreko ikasturtean baino %25 gehiago.

# Gure Begirada sariak




Lehiaketaren antolatzaileek sariak eman dituzte.

ONCE-K ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAK IKUSMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN BIZIMODUA HOBETZEKO PROIEKTURIK ONENAK SARITU DITUZTE

**Enpresagintza Fakultatea |** ONCEk Gure Begirada lehiaketaren II. edizioaren epaia eman du, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy nazioarteko ekintzailetza-unitatearekin elkarlanean. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan gradu-ikasketak egiten ari diren ikasleentzat zuzendutako lehiaketa da, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren babesa du.

Guztira, Mondragon Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko 111 ikaslek hartu dute parte bertan, eta sari banaketa honen xedea ikusmen urriko pertsonek egunerokoan dituzten erronkei aurre egitea eta, ondorioz, pertsona horien bizimodua hobetzea da  Lehiaketak hiru sari banatzen dizkio hiru proiektu onenei: 1.000 euro proiektu irabazleari, 500 euro bigarrenari eta 300 euro aukeratutako hirugarren proiektuari.

> Guztira, Mondragon Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko 111 ikaslek hartu dute parte.

Lehen saria EHUko Publizitateko eta Harreman Publikoetako graduko ikasleek osatutako taldeari eman zaio, erosketak egitea errazten duen Cleverway izeneko aplikazio mugikorra diseinatzeagatik.

2. saria Mondragon Unibertsitateko LEINN graduko ikasleek eskuratu dute, ikusmen urriko pertsonei objektuak identifikatzen laguntzeko diseinatu dituzten NFC etiketengatik.

Azkenik, 3. saria ere LEINN ikasleek jaso dute, ikusmen desgaitasuna duten pertsonek ospitaleetako guneetan gidari gisa erabiltzeko aplikazio baten diseinuagatik.

## Itsuen bizimodua hobetzeko proiektuak

Gure Begirada lehiaketa unibertsitarioak proiektuak garatzera eta praktikan jartzera animatzen ditu irabazleak, itsuen edo ikusmen urriko pertsonen mesederako. Proiektu onenak aukeratzeko epaimahaia hauxe izan da: Rafael Ledesma, ONCE Euskadiko Lurralde Kontseiluko burua; Juan Carlos Andueza, ONCE Euskadiko lurralde-ordezkaria; Marian Olabarrieta, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendaria; Aurora Madariaga, Deustuko Unibertsitateko Aisia eta Desgaitasuna katedraren zuzendaria; Jokin Gorozika, EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolako Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak Saileko irakasle titularra; eta Ziortza Olano, Mondragon Team Team Academy Bilbao Berrikuntza Faktoriaren eta Team Coachen koordinatzailea Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultatean.

Erabakia hartzeko, epaimahaiak irizpide hauek hartu ditu kontuan, besteak beste: proiektuaren izaera berritzailea, eragin sozial eta digitala, eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa.

# Euskal gatazka hizpide Aretxabaletako campusean

'ATZERAKO ISPILUTIK: EUSKAL HERRIAREN IRAGAN HURBILA, ORAINA ETA GEROA' MAHAI-INGURUAN EGIN DUTE KOMUNIKAZIO CAMPUSEAN. EKITALDIA DA EUSKO JAURLARITZAREN BIZIKIDETZA, GIZA ESKUBIDE ETA ANIZTASUNAREN PLANAREN PARTE.



Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek aukera izan dute hizlariekin ideiak elkarbanatzeko.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako Komunikazio campuseko ikasleek euskal gatazka hizpide izan zuten. Urriaren 11n izandako ekitaldian, lau ordezkarik hitz egin zuten: Aintzane Ezenarro (Gogora Institutuko zuzendaria), Gorka Espiau (Agirre Lehendakaria Center-eko zuzendaria), Jon Moñux (Argituz elkarteko kidea) eta Mario Zubiaga (Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea). Gidari lanak, aldiz, Ane Zuazubiskar Mondragon Unibertsitateko ikasle ohia eta Euskadi Irratiko kazetariak egin zituen.

## Euskal Herriaren iragan hurbila aztergai

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasle guztientzako moduko ekitaldia izanagatik ere, Mundu garaikidea eta errepresentazioa izeneko moduluaren barnean kokatzen da mahai-ingurua. Aipatutako moduluan, hasteko, iragan hurbilari erreparatu eta munduan azken hamarkadetan emandako gertaera nagusiak errepasatu dituzte; eta ondoren, Euskal Herriaren iragan hurbilari heldu diote. Jardunaldia, bigarren testuinguru horretan kokatzen da. Gainera, eta Gogora Institutuko Adiadian programaren baitan, gatazkaren bi biktimarekin egoteko aukera izan dute ikasleek.

Jardunaldia eta biktimen hitzaldiak antolatu dira Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetza, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Planaren baitan.

# Gorka Ortiz de Zaratek Taylor domina eskuratu du

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKERTZAILEAK FABRIKAZIO AURRERATUKO TAYLOR DOMINA OSPETSUA JASO DU 2021EAN ARGITARATUTAKO IKERLAN BATI ESKER. BERTAN MEKANIZAZIO-PROZESUETAN TXIRBILAREN ETA EBAKETA-ERREMINTAREN ARTEKO MARRUSKADURA EZAUGARRITZEKO METODO BERRI BAT AURKEZTU ZUEN.



Gorka Ortiz de Zarate Bengoa *Taylor* dominarekin.

**Goi Eskola Politeknikoa |** Mondragon Unibertsitateko Errendimendu Handiko Mekanizazioko Ikerketa Taldeko ikertzailea den Gorka Ortiz de Zarate Bengoak fabrikazio aurreratuko sari ospetsuenetako bat jaso du, Taylor domina hain zuzen. Fabrikazio aurreratuko ikerketa aplikatuan liderra den CIRP nazioarteko erakundeak Bilbon egin du 71. Batzar Nagusiaren baitan sari honekin aitortua izan da Ortiz de Zarate. Industria orokorraren eta, bereziki, aeronautika-industriaren alorrean 2021ean egindako ikerlan batengatik saritu dute Mondragon Unibertsitateko ikertzailea. Eusko Jaurlaritzaren beka baten bidez finantzaturiko doktorego-tesiaren esparruan egindako lanak cum laude aipamenaz gain Nazioarteko Doktore izendapena ere eskuratu zuen. Testuinguru honetan, Ortiz de Zaratek CIRPek ematen duen *Frederick Winslow Taylor* domina eskuratu zuen Mekanizazio-prozesuan txirbilaren eta erremintaren arteko marruskadura ezaugarritzen egindako lanagatik. Ikerketaren helburua alor honetan aurreikuspen-eredu fidagarriagoak garatzea da, horrela osagaien mekanizazio-prozesuak optimizatzea lortuz. Horretarako txirbilaren eta erremintaren arteko ukipen-guneko tentsio normalak eta tangentzialak esperimentalki neurtzen dituen teknologia bat garatu da, eta hortik abiatuta marruskadura-eredu bat atera daiteke, ebaketa-prozesuaren modelatzean lortutako emaitzak hobetu ahal izateko. Fabrikazio prozesuaren optimizazio hau lagungarria izango da kostuak murriztu eta bezeroei erantzun azkarrago bat eskaini ahal izateko, ingurumen-inpaktua murrizteaz gain.

## Erakundeen aitortza

CIRP 1952an sortu zen, eta mundu zabaleko erakunde liderra da ekoizpen-ingeniaritzaren esparruko ikerkuntzan. Ikerketa eta Garapena sustatzeko, urtero antolatzen du CIRPek bere batzar nagusia, eta aurten Bilbon egin izanak Euskadik fabrikazio aurreratuaren arloan egiten duen apustua bistaratzeko baliagarri izan da. Horrez gain, Gorka Ortiz de Zarate Bengoak egindako lanaz aparte, errekonozimendu honek Goi Eskola Politeknikoko Errendimendu Handiko Mekanizazio Taldeak fabrikazio aurreratuaren eta modelatzearen alorrean azken 25 urteetan egiten ari den ikerketa-lana nabarmentzen du. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Mondragon Unibertsitateak estatu mailan duen posizionamendu ikertzaile eta industriala aitortu nahi izan du, bikaintasun talde gisa izendatuz.

# Cinco estrenos mundiales en Culinary Zinema



Joxe Mari Aizega y José Luis Rebordinos.

**Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas |** En el marco de la 70ª edición del Festival de Cine Internacional de San Sebastián, cinco estrenos mundiales integraron la sección Culinary Zinema. El quinteto estuvo conformado por tres documentales y dos ficciones. "Mibu: La luna en un plato", documental que permite conocer el famoso restaurante japonés; "Virgilio", un retrato íntimo del chef del restaurante peruano Central; y "La Huella", historia de un parador de playa. Para completar la selección vinieron las ficciones, "Nostalgia", reminiscente al poder de la herencia familiar, y "The Zen Diary", una historia sobre el duelo y el valor de la soledad.

## Cenas temáticas

Los cinco largometrajes de la sección estuvieron acompañados de cenas temáticas, que tuvieron lugar entre los días 19 y 23 de septiembre en Basque Culinary Center y cuyo denominador común fue el viaje a destinos culinarios como Uruguay, China, Japón y Perú.

Las cenas temáticas de Culinary Zinema arrancaron con una cena inaugural vinculada al filme "Mibu: La luna en un plato". La velada del 20 de septiembre se centró en la gastronomía uruguaya de la mano del equipo del parador "La Huella", mientras que el día 21 fue el complemento de la película "The Zen Diary".

El 22 de septiembre las personas asistentes pudieron disfrutar de una experiencia gastronómica centrada en una de las ocho grandes tradiciones culinarias de China, como complemento del filme "Nostalgia". Por último, el 23 de septiembre, Virgilio Martínez y Pía León clausuraron una nueva edición de Culinary Zinema ofreciendo una experiencia gastronómica centrada en su documental.

# Kalean da haur eta gazteei zuzendutako liburuen gida

'HAUR ETA GAZTE LITERATURA GIDA 2021' EGITEKO LANTALDEAN PARTE HARTU DUTE BIBLIOTEKA ETA ESKOLETATIK ETORRITAKO 14 LAGUNEK. HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK 1990. URTEAN JARRI ZUEN ABIAN PROIEKTU HAU.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 2021. urtean euskaraz argitaratutako haur eta gazteei zuzendutako 227 liburuak biltzen dituen argitalpena kaleratu du: *Haur eta gazte literatura irakur gida 2021*. 2021. urteko gida egiteko, haur eta gazte literaturarekin lotutako bederatzi erakundetako 14 lagunek hartu dute parte, tartean, liburuzainek, eskoletako irakasleek eta Mondragon Unibertsitateko adituek.

### Laguntzeko egindako bilduma

Egileen esanetan, "gida hau talde baten lan jarraituaren eta liburu askoren irakurketaren emaitza da. Guraso, irakasle eta bibliotekarientzat lagungarri izan nahi du". Egileen iritziz, gidak "ezin du irakurketa zuzena ordezkatu, ezta irakurketak sortzen duen plazerra bera ere, ez baita talde honek egiten duen irakurketaren adierazpena baino".

1990. urtean hasi ziren Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiko kideak literatura gida kaleratzen. Proiektua elkarlanean egiten dute fakultateko arduradunek, Debagoieneko udal liburutegiko eta ibarreko ikastetxeetako irakasleekin batera. 2001. urtetik aurrera argitaratutako zenbaki guztiak daude sarean, denon eskura.



2021eko gidaren azala.

# Segunda edición del programa senior

LA FACULTAD DE EMPRESARIALES Y ADEGI PONEN EN MARCHA UN PROGRAMA QUE SE DESARROLLARÁ EN DONOSTIA ENTRE EL 26 DE ENERO Y EL 29 DE JUNIO, COMBINADO CON SESIONES ONLINE DE MENTORIZACIÓN PERSONALIZA.

**Facultad de Empresariales** | Mondragon Unibertsitatea y ADEGI ponen en marcha la segunda edición del programa senior en Personas, Cultura y Talento para el Futuro del Trabajo. El objetivo de este curso experto es preparar a los y las profesionales en recursos humanos, teniendo en cuenta los cambios de tendencias que se están produciendo en el mundo del trabajo y cómo afectan a la gestión de las personas.

### Adaptado a tendencias actuales

Es en este contexto cambiante donde la función de gestión de personas en las organizaciones se está convirtiendo en una palanca clave de la competitividad de las empresas, por lo que requiere de competencias para atender a los nuevos retos. De hecho, los expertos en recursos humanos son conscientes de que las tendencias del mundo laboral están impactando de lleno en la gestión de las personas en las organizaciones. El programa se desarrolla en Donostia, desde el 26 de enero de 2023 hasta el 29 de junio 2023, en formato semipresencial, clases quincenales que tendrán lugar los jueves por la tarde y se combinarán con sesiones online de mentorización personalizada y aprendizaje colaborativo.

# Alianza entre Escuela Politécnica Superior y ULMA



Representantes de ULMA y la Escuela Politécnica Superior han formalizado el acuerdo.

**Escuela Politécnica Superior** | La Escuela Politécnica Superior y el Grupo ULMA han firmado un acuerdo de colaboración científico-tecnológica a largo plazo, para la puesta en marcha de un programa de formación, investigación y transferencia. Dicho acuerdo promueve la colaboración en los campos del conocimiento tecnológico, el intercambio y la transferencia de conocimiento y la promoción de actividades conjuntas que redunden en la mejora a corto y largo plazo de la eficiencia de ULMA y de su competitividad. En dicho contexto se pondrán en marcha actuaciones y programas para la gestión del talento y se fomentarán actividades coordinadas entre ULMA y la Escuela Politécnica relacionadas con la promoción de los ámbitos científico-tecnológicos entre los y las jóvenes.

### Una colaboración histórica

La Escuela Politécnica Superior y ULMA cuentan con una larga trayectoria conjunta de colaboración en la formación, investigación y transferencia, especialmente centrada en los ámbitos de interés del Grupo ULMA. Con la formalización de dicha colaboración en un acuerdo a largo plazo, se formará un grupo de trabajo colaborativo y multidisciplinar donde participarán profesionales de ULMA e investigadores y estudiantes de la universidad.

## Arranca el proyecto europeo baSE

EL PROYECTO LIDERADO POR LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR Y CENTRADO EN REVITALIZAR LA ECONOMÍA SOCIAL REÚNE A UNA AMPLIA COMUNIDAD EUROPEA.



Distintas entidades forman parte del proyecto.

**Escuela Politécnica Superior |** El proyecto baSE, un proyecto europeo en el que participan 25 entidades de 10 países europeos, entre los que se incluye la Corporación MONDRAGON es liderado por la Escuela Politécnica Superior. Se trata de un proyecto cuyo objetivo es desarrollar una estrategia continental para proporcionar nuevas habilidades de economía social, centrándose especialmente en las áreas digitales y verdes, con respecto a los perfiles ocupacionales en el sector de la Economía Social y la Proximidad.

El proyecto baSE, además, apuesta por el intercambio de conocimientos entre los distintos niveles de la educación y la formación, contribuyendo al crecimiento del ecosistema mediante actuaciones de economía social (ES). De esta manera, se pretende abordar los desajustes de habilidades y proporcionar nuevas habilidades con respecto a los perfiles ocupacionales en el sector ES.

### Estratégico en Europa

El proyecto baSe está financiado por el programa Erasmus+, y cuenta con un presupuesto de 3,9 millones de euros, provenientes de distintas fuentes europeas. Es un proyecto internacional que parte de un estudio realizado por la Unión Europea en 2016 que ha servido de base para el informe anual sobre el mercado único de 2021. En él muestra el sector de la economía social como un sector que emplea 13,8 millones de personas, 6,2% de los empleados de la Unión Europea, y moviliza a 82,8 millones de voluntarios y 232 millones de miembros de cooperativas u otras entidades.



Fatmata Binta, ganadora del Basque Culinary World Prize.

# Fatmata Binta, ganadora del Basque Culinary World Prize 2022

FATMATA BINTA HA SIDO RECONOCIDA POR EL PROYECTO 'DINE ON A MAT', UN TRABAJO DE DIVULGACIÓN Y DESARROLLO EN TORNO A LA CULTURA CULINARIA DE LOS FULANIS, LA MAYOR TRIBU NÓMADA DE ÁFRICA.

**Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas |** Fatmata Binta, actual referente de la cocina fulani, nómada y moderna, ha sido elegida ganadora del Basque Culinary World Prize, premio internacional otorgado por Basque Culinary Center y el Gobierno Vasco, en el marco de la estrategia integral Euskadi-Basque Country.

El jurado formado por representantes del Comité Internacional de Basque Culinary Center y presidido por el chef Joan Roca han elegido a chef Binta ganadora por su trabajo de divulgación y desarrollo que lleva a cabo en torno al potencial que yace en la cultura culinaria de su tribu. Originaria de Sierra Leona, la chef Binta se esfuerza por compartir, con su iniciativa 'Dine on a mat', costumbres, sabores y formas de relacionarse con la comida propias de los fulanis, en un formato que le permite hacer de la mesa una valiosa fuente de diálogo, entendimiento, educación, equidad y prácticas sostenibles.

### Trabajar en la educación

Desde Fulani Kitchen Foundation, Binta tiene como objetivo educar, capacitar y empoderar a las mujeres y niñas de todas las regiones Fulani; empezando por la construcción de un centro que actuará como santuario para las mujeres y que se encuentra orientado a atender a las necesidades sociales, educativas y comunales, así como un refugio seguro donde procesar y envasar productos de distintos tipos.

La fundación ha comenzado a trabajar sobre cuatro hectáreas, esperando alcanzar las 500, y conseguir así exportar al menos 200 toneladas de fonio –cereal sin gluten– a distintos países de África y al extranjero, apostando por el aumento de la productividad de zonas desaprovechadas, asegurando contextos de autonomía económica, seguridad alimentaria y empleabilidad para estas comunidades rurales.

### Menciones especiales

El jurado ha reconocido también la labor de otros dos chefs otorgando menciones especiales a Douglas McMaster (Reino Unido), por utilizar su creatividad para promover el "zero waste" mediante iniciativas como Zero Waste Cooking School, que surgió durante el confinamiento con el objetivo de promover dicha filosofía, y concienciar a la sociedad sobre la problemática del desperdicio de una manera cercana y creativa; y a Edson Leite (Brasil) por diseñar programas de capacitación culinaria y acompañamiento que puedan servirles a jóvenes en busca de oportunidades laborales mediante la Escuela Periférica de Gastronomía que creó en 2012.

# Mondragon Team Academy, inbertsiorako palanka

URRIAREN 18 ETA 19AN EGIN ZEN B-VENTUREREN 2022KO EDIZIOA BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN. TAILER, STAND, PONENTZIA ETA MAHAI-INGURU EZBERDINAK IZAN ZIREN, EMAKUME EKINTZAILE INBERTSORE ETA ERAKUNDEEN TOPALEKU BILAKATUZ.



Euskaldunan egindako ekitaldiren argazki bat.

**Facultad de Empresariales |** B Ventureren 2022ko edizioan presentzia handia izan zuen Mondragon Team Academyk. Mondragon Team Academyn sortutako proiektuek aukera izan zuten beraien proposamena ikusarazteko, B Ventureren edizio honetan gune propio bat izanez. Horietako bi proiektu agertoki nagusian aurkeztu ziren Trak eta Lup-ek eta, bestalde, Diateknia, Euskape, Gaman, MyWay Heels eta Kuvu proiektuek ere stand batekin parte hartu zuten.

Bestalde, Mondragon Team Academy-ko Bilboko laborategiko team coach-en taldeko kide batzuek tailer bat gidatu zuten, eskalagarritasunari buruzko startup, aholkularitza-enpresa eta gazte ekintzaileen partaidetzarekin, negozio bat ideiatik inpaktura nola pasatuz azalduz. Prestakuntza horretan 4Pen kontzeptua sakondu zen: People, Purpose, Planet eta Profit (beste 3 P-ak lortzeko tresna gisa). Teoria hori MTAren ikaskuntza-prozesuan eta Falkon Model metodologian ere aplikatzen da, eta ekintzailetza-proiektuetatik inpaktua duten ekintzailetza-proiektuetara igarotzen laguntzen digu. Parte-hartzaile guztien artean, proiektuen iraunkortasuna iraunkortasun ekonomiko hutsetik haratago doala jabetu nahi zen, egungo jasangarritasun-ikuspegia berroneratze aldera eraldatuz.

> Mondragon Team Academyn sortutako proiektuek aukera izan zuten beraien proposamena ikusarazteko, B Ventureren edizio honetan gune propio bat izanez.

### LEINNeko ikasleek antolatuta

LEINNerrek antolatzaile-taldean parte hartu dute, ekitaldiaren prozesu osoa diseinatuz eta landuz, eta parte-hartzaileen esperientzia babestuz, 50 LEINNer baino gehiago baitzeuden.

Ikasitako guztiaren artean, Startup kontzeptutik ContinueUp-era joan nahi dugula ikusi dugu. Kontzeptu horretan hastea funtsezkoa da, baina are gehiago, modu iraunkorrean jarraitzea, gizarte, ingurumen eta ekonomia inpaktua kontuan hartuta.

# Lurralde bizigarriak sustatzeko bilkura

KOOPFABRIKAK ANTOLATUTAKO JARDUNALDIAN PARTE HARTU DUTE, BESTEAK BESTE, OLATUKOOP-EKO ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ORDEZKARIEK ETA IVAN MIRÓ, BARTZELONAKO LA CIUTAT INVISIBLEKO KIDEAK.



Lazkaoko Biziolan egin zen jardunaldia.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** KoopFabrika egitasmoak antolatuta, *Lurralde kooperatiboak* josten izeneko jardunaldia egin dute urriaren 6an eta 7an, Lazkaoko Biziolan. Bilkuraren xedea izan da Euskal Herrian eta beste lurraldeetan geroz eta gehiago sortzen ari diren esperientzia publiko-kooperatibo-komunitario eraldatzaileak ezagutzea eta esperientzia horiek partekatzea. Gainera, Gobernantza publiko-komunitarioaren erronkak eta aukerak zeintzuk diren aztertzeko ere baliagarria izan da jardunaldia.

Bilkuran parte hartu dute Ivan Miró Bartzelonako La Ciutat Invisible-koordezkariakiak, Jule Goikoetxea EHUko ikertzaileak, Andoni Egia Hernani Burujabeko ordezkariak eta Isabel Elizalde Malerreka Commons-eko esperientziakoak.

### Ekosistema berriak sustatuz

Biziolako jardunaldia baliatu dute Lurralde Eskola proiektuaren osaketa egiteko. "Eskala jauzi bat" egin beharra azpimarratu dute. Arianne Kareaga proiektuaren sustatzaile eta Mondragon Unibertsitateko ikerlariak gaineratu duen moduan: "proiektu solteak baino, lurraldeari atxikitako ekosistema kooperatibo-komunitarioak sustatzeko dispositiboa sortu nahiko genuke, pertsona eta komunitatea ardatz izango dutenak".

KoopFabrika da ekonomia sozial eraldatzailea eta ekintzailetza soziala sustatzeko programa, eta egitasmoaren helburua da proiektu profesional eta ekimen sozio-ekonomikoak martxan jartzen laguntzea. 2017an lehen aldiz abian jarri zenetik, KoopFabrikak hamarnaka proiektu bultzatu ditu.

Estudiantes internacionales

# Un destino por descubrir

CADA CURSO JÓVENES DE TODO EL MUNDO ACUDEN A MONDRAGON UNIBERTSITATEA CON EL OBJETIVO DE FORMARSE INTERNACIONALMENTE. DESDE SU APUESTA POR LA INTERNACIONALIZACIÓN, LA UNIVERSIDAD OFRECE PLANES DE FORMACIÓN INTERNACIONAL DESDE LA ACADEMIA, LA INVESTIGACIÓN O LA EMPRESA.

Septiembre de 2022. Un nuevo curso comienza, uno más para mucha gente, uno especial para tanta otra. Cientos de estudiantes de todo el mundo llevan todo el verano preparándose para una aventura, una aventura internacional. Muchas son las preguntas que tocan hacerse antes de coger un avión y lanzarse a la aventura: ¿qué tipo de ropa meter en la maleta? ¿merece llevar un poco de comida de mi tierra? ¿seré capaz de integrarme en un nuevo entorno?

Hace ya tres años que todas esas preguntas pasaron por la cabeza de Stefano Giuseppe Danessi, aunque la internacionalización sea algo que precisamente a él no le es extraña. Nieto de italianos, e hijo de peruanos, Stefano nació hace 21 años en Houston, aunque a los siete años se trasladó junto a sus progenitores al Perú del que provienen. Allí creció hasta los 17 años, cuando decidió volver a empacar su equipaje para trasladarse a Donostia, al matricularse en el Grado en Gastronomía y Artes Culinarias del Basque Culinary Center.

Danessi recuerda que al llegar al País Vasco se encontró en una ciudad de la que solo conocía el nombre por su vinculación con la gastronomía, lejos de su entorno de familia y amistades, algo que según él le hizo crecer y madurar a mayor velocidad. Según cuenta, siempre se sintió atraído por la gastronomía, y al realizar un estudio de mercado sobre las posibilidades existentes que había en el sector, se decidió por Basque Culinary Center, especialmente "por la posibilidad de profundizar en toda la industria gastronómica en general, no solo en el sector de la alimentación".

Actualmente, Danessi está en cuarto del Grado de Alimentación y Ciencias Culinarias, y tras cursar el primer cuatrimestre del presente curso, se trasladará a Suiza para realizar las prácticas profesionales, debido a que por motivos profesionales su familia se ha trasladado a vivir al país de los Alpes. Por lo tanto, Stefano está cerca de comenzar una nueva aventura internacional sin aún haber terminado la presente, y con la firme intención de experimentar cuántas sean posibles. En sus palabras, "Europa ofrece la posibilidad de conocer distintos idiomas, culturas o territorios dentro de una superficie menor a Latinoamérica, y su desarrollo social y cultural es una fuente inagotable de inspiración". Por ello, Danessi pretende alargar por unos cuantos años su estancia europea, aunque su visión a largo plazo le llevé de vuelta a Perú: "una vez que termine mi formación, me gustaría regresar a mi país para aplicar mis conocimientos y poder emprender en algo que ponga a Perú en el mapa, ya que creo que cuenta con unos productos y una tradición culinaria que merecen ser más conocidos en el exterior".



> Danessi se decidió el Basque Culinary Center, especialmente "por la posibilidad de profundizar en toda la industria gastronómica en general, no solo en el sector de la alimentación".

**Descubrir nuevas culturas**

Nora y Anica provienen de Suiza, y supieron acerca de Mondragon Unibertsitatea debido a su atracción hacia el entorno. Estas jóvenes helvéticas se consideran unas estudiosas del País Vasco, y aunque anteriormente no habían tenido nunca la oportunidad de visitar estas tierras, habían escuchado maravillas sobre la misma, especialmente acerca de sus paisajes y la cercanía entre la montaña y la costa, algo que es impensable en su país de origen. Indagando sobre el terreno, descubrieron que hay un idioma propio sobre el que quieren profundizar, además de mostrarse interesadas en la cultura vasca en todas sus formas. Una vez identificado el País Vasco como un destino interesante, cuentan que comenzó la búsqueda de universidades, y es entonces cuando descubrieron Mondragon Unibertsitatea. En sus palabras, "la universidad nos causó una buena impresión, y los módulos de formación que ofrece nos atrajeron de inmediato". Cuentan que nunca habían estado en el extranjero por

Mondragon Unibertsitatea

**1.500** ESTUDIANTES INTERNACIONALES

**LA SEGUNDA UNIVERSIDAD DEL ESTADO EN MOVILIDAD** SEGÚN U-MULTIRANK

**ESTUDIANTES DE GRADO** EL 52% TIENE EXPERIENCIA INTERNACIONAL




un largo periodo de tiempo, y que encontraron ante sí la posibilidad de formarse internacionalmente, algo que consideran fundamental a día de hoy.

Algo en lo que coinciden Nora y Anica con Stefano es en que la experiencia comienza a sentirse de verdad al sumergirse en la rutina. En el caso de Nora y Anica, son estudiantes de la Facultad de Ciencias de la Educación y Humanidades, y dicen sentirse muy cómodas en la misma. Actualmente, acuden a tres módulos diferentes, que califican como muy interesantes y emocionantes, pero echan de menos algo de continuidad en sus clases; "ahora vamos una vez por semana a la universidad, y nos gustaría poder ir dos o tres veces por semana". Para ellas, las clases son una oportunidad para poder entablar conversaciones con el profesorado y sus compañeros y compañeras, ya que lo identifican como un espacio en el que pueden aprender más sobre el euskera.

Nora y Anica se encuentran en el último año de estudio en Suiza, y consideran que se encuentran en una etapa avanzada en cuanto al conocimiento teórico, por lo que buscan algo complementario durante su estancia internacional, ya que además de conocer más sobre el euskera, están estudiando el castellano de forma intensiva. Además, cuentan que en su formación como futuras maestras, están adquiriendo competencias a las que tal vez en Suiza no den tanta importancia, como el desarrollo infantil en edades entre 0 y 6 años, ya que en su programa de estudio se centran más en la edad primaria.

> "La universidad nos causó una buena impresión, y los módulos de formación que ofrece nos atrajeron de inmediato"
>
> Nora y Anica.

En sus palabras, "es difícil comparar los módulos de aquí con los de Suiza, ya que los contenidos son completamente diferentes, por ejemplo, respecto al módulo

«Contexto múltiple para el desarrollo infantil», que la mayor diferencia radica en las fuentes con las que se trabaja".

**Completar el perfil profesional**
Mario Andre Molina tiene 27 años, y es natural de Querétaro, México. Ingeniero de formación en la Universidad Tecnológica de Monterrey, aterrizó en la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea para cursar el Máster en Ciberseguridad, Análisis de Datos y Computación en la Nube. Apasionado del análisis de datos, Molina buscaba completar su perfil profesional hacia esta área, y tras realizar una exhaustiva búsqueda de opciones para ello tanto en México como en Europa, se decidió por la opción de Mondragon Unibertsitatea, especialmente por su oferta de plan de estudios aplicado el trabajo y su programa DUAL; "me interesa más el trabajo que el ámbito puramente académico, y Mondragon Unibertsitatea me ofrecía una formación muy orientada a la empresa".

A diferencia de las anteriores protagonistas, Mario Andre Molina conocía el País Vasco antes venir a estudiar aquí, ya que durante sus estudios de Grado realizó un Erasmus en Turín (Italia) en el que coincidió con varios estudiantes vascos, a través de los cuales ha podido visitar lugares como Donostia, Bilbao, Tolosa o Zarautz. Aun así cuenta que esta nueva vivencia le está permitiendo conocer otros lugares como Vitoria, además de descubrir la propia Arrasate, que a pesar de coincidir con estudiantes de Mondragon Unibertsitatea en Turín no llegó a conocer en su momento.

Molina se muestra contento con la experiencia que está viviendo, y cree que los conocimientos que está adquiriendo van a serle muy útiles en el futuro: "En mi trabajo como analista de software en México estaba algo perdido, sentía que me faltaban herramientas, y buscaba la manera de poder adquirir nuevos conocimientos para completar mi perfil". Resalta además el ritmo de trabajo de la universidad, superior al que estaba acostumbrado: "Estoy motivado con la exigencia que ello me supone, además en mi grupo de trabajo prevalece el euskera sobre el castellano, y eso supone un reto mayor, estoy intentando superarme cada día". Molina considera clave la internacionalización en su formación y cree que con un perfil internacional podrá aspirar en un futuro a conseguir un puesto de trabajo que le satisfaga, ya sea en Europa o de regreso en México.

Muchas son las causas por las que estudiantes de todo el mundo acuden a Mondragon Unibertsitatea, ya que cada uno lo hace en base a sus propias motivaciones. Para responder a cada una de ellas, la universidad lleva años trabajando en una estrategia internacional de la que empiezan a recogerse sus frutos, posicionándose como un referente para estudiantes, empresas u otros centros de formación.

> La universidad lleva años trabajando en una estrategia internacional de la que empiezan a recogerse sus frutos "



> Me interesa más el trabajo que el ámbito puramente académico, y Mondragon Unibertsitatea me ofrecía una formación muy orientada a la empresa"
>
> Mario Andre Molina

EN

# A DESTINATION TO DISCOVER

MONDRAGON UNIBERTSITATEA'S INTERNATIONAL EDUCATION PLANS FOR ACADEMIA, RESEARCH AND BUSINESS ATTRACT STUDENTS FROM AROUND THE WORLD.

September 2022 is the start of a regular academic year for some, but others have spent all summer preparing an international adventure.

One of them is Stefano Giuseppe Danessi, who was born in Houston of Italian and Peruvian descent. Raised in Peru, he's come to San Sebastian to study Gastronomy and Culinary Arts at the Basque Culinary Center.

Danessi remembers arriving in the Basque Country to find a city he knew only through its food. He ultimately chose the Basque Culinary Center, "so he could explore the entire culinary industry, not just making food".

Danessi is a fourth year Food and Culinary Science student and he's starting an internship in Switzerland soon. "In Europe", he says, "you can experience so many languages and cultures in such a small area. It's so inspiring." Danessi plans to go back to Peru after graduation to apply his knowledge to a local project.

**Discovering a New Culture**
Nora and Anica are from Switzerland. They were drawn to the Basque Country by its mountains and sea and the unique language and culture. After looking at many universities they found Mondragon Unibertsitatea and they liked it right away. They'd never spent much time outside their country, but they think studying abroad is extremely valuable.

Something all the students think is important is getting into the routine. Nora and Anica are in Education and Humanities Sciences and they love their courses. But they'd like to have class more often because of the conversations with professors and other students and to learn more about the Basque language.

Nora and Anica are in their last year and they're looking for experiences beyond academic course work. In addition to studying Spanish and Basque, they're learning skills that may not be emphasized back home, like early childhood development from 0 to 6. But they say, "It's hard to compare because the content is so different.

**Building Qualifications**
Mario Andre Molina is a 27 year old engineer from Mexico. He came to the Mondragon Unibertsitatea Polytechnic School to do a master's in Cybersecurity, Data Analysis and Cloud Computing. After looking at programmes in both Mexico and Europe, he chose the university primarily because of the DUAL programme.

Unlike the others, Mario Andre Molina had been to the Basque Country before. He visited San Sebastián, Bilbao, Vitoria and Arrasate while he was an Erasmus student in Italy.

Molina is happy with his experience and thinks the knowledge he's gaining will be useful in the future. He said, "At my job as a software analyst in Mexico I think I lacked tools". Molina is motivated by the faster pace and believes his experience will be key to finding a good job either in Europe or Mexico.

Students from around the world come to Mondragon Unibertsitatea for many reasons. Years of work on its international strategy is making the university a leader for students, companies and other learning institutions.

# EL VALOR DE LA MOVILIDAD

**Arturo Alvarado Hierro.** Rector de Universidad Mondragon México (UMx)



La internacionalidad es una palabra genérica en educación superior que se explica como cada universidad prefiere o puede, y que se menciona mucho porque vende. Atrae a los jóvenes la idea de viajar, apela al hemisferio cerebral derecho y emocional, que refuerza una decisión de matriculación en un grado o en una universidad ante los clásicos argumentos del hemisferio izquierdo: empleabilidad, calidad, pertinencia, alternancia, etc. Como vende, todos la mencionan, hoy día hay que tenerla, y muchos la explican con el profesorado extranjero, con los alumnos extranjeros que vienen, las alianzas internacionales, la proyección de la propia universidad, etc.

Creo fielmente que el elemento insustituible de la internacionalidad que aporta valor indiscutible para el alumnado y su formación, es la movilidad. Movilidad corta o larga, pero movilidad, ese arrojo de salir de la comodidad del entorno controlado para enfrentarte a la incertidumbre de otra cultura, con la perspectiva que aportan los kilómetros de por medio y con la dificultad de volverse atrás una vez lejos y con fecha de retorno.

Independientemente de la función social que entienda una universidad que debe cumplir, ninguna puede estar desligada de su territorio ni del futuro empresarial al que se enfrentarán sus egresados. En este sentido, creo fielmente que MU y UMx promovemos activamente la movilidad no por moda, sino entendiendo que estamos ambas asentadas en territorios predominantemente industriales y productivos, en donde el trabajo multicultural y la movilidad laboral es, y crecientemente será, una característica de la vida laboral de nuestros egresados. Estando inmersos en empresas multinacionales, con sedes en todo el mundo, con personas de culturas y realidades muy distintas, es indispensable tener la sensibilidad para respetar otras formas de ver el mundo (sin perder productividad ni competitividad), y valorar otros enfoques para enfrentar los problemas que enriquezcan a cada persona y cada organización.

*Creo fielmente que el elemento insustituible de la internacionalidad que aporta valor indiscutible para el alumnado y su formación, es la movilidad. Movilidad corta o larga, pero movilidad.*

Personalmente disfruto mucho cuando platico con estudiantes de enpresagintza que vienen todos los años a UMx y me cuentan lo que extrañan del País Vasco, lo que reconocen de valor en la cultura mexicana, lo que les llama la atención e incluso lo que les causa gracia. En ocasiones para reconocer lo que tenemos hay que salir y contrastarlo. Me encanta que disfruten de clases de baile en México, que se abran a otro contexto y que al finalizar tengan conciencia de que no hay mejor ni peor, solo formas de vida que ameritan respeto y con las que siempre se puede colaborar en buena voluntad.

Cuando vienen por periodos más largos como este ciclo ha ocurrido con estudiantes de HUHEZI, o cuando hay movilidad laboral, nunca falta la semana de la "venganza de moctezuma" en la que a todos les sienta mal una comida tan diferente, hay un aprendizaje en cada historia por pequeña que sea, y al ser un tema de carga emocional tan alta, suelen ser aprendizajes duraderos.

Lo mismo pasa cuando los alumnos de UMx están por el País Vasco en un semestre o un máster, más de uno vuelve con un corte de pelo distinto o un modismo (hasta ahora nadie ha copiado el flequillo, pero ya pasará), y con referencias gastronómicas de una cocina espectacular y unos paisajes esplendorosos.

Más allá de las experiencias personales que siempre apelan a la nostalgia de la juventud cuando uno las cuenta, lo más importante de todo el proceso es el resultado: jóvenes profesionales capaces de desenvolverse en contextos muy diversos con éxito y respeto. Es importante cuando se van, pero más importante es cuando vuelven, con la conciencia de que el extranjero no es un extraño, es un colega; y que más allá de las obtusas generalizaciones culturales que pueda haber en ambos sentidos, hay una persona con la que puedo construir confianza, trabajar y sobre todo en estos tiempos que tanta falta nos hace recordarlo: colaborar y cooperar en buena voluntad.



# “Mundura irekitako unibertsitate globala izan nahi dugu”

**Modesto Mateos**

**Mondragon Unibertsitatearen Nazioarteko arduraduna**

NAZIOARTEKOTZA LEHENTASUNEZKO GAIA DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ESTRATEGIAN, ETAHORREN BAITAN, AZKEN URTEETAN PROIEKTU ETA EKIMEN EZBERDINAK MARTXAN JARRI DITU ERAKUNDEAK. HONI ESKER, GAUR EGUN MONDRAGON UNIBERTSITATEA ERREFERENTE BILAKATU DA NAZIOARTEKO UNIBERTSITATE ETA ENPRESEN ARTEAN, HAZKUNDE JARRAITUARI ESKER.

**2016ko uztailaz geroztik Modesto Mateos Mondragon Unibertsitatearen Nazioarteko Arduradun gisa aritu da lanean. Otsailean Jaione Iriondori emango dio erreleboa karguan, eta une hori iritsi bitartean sei urte hauetako ibilbidea errepasatzeko elkartu gara berarekin.**

**Zein da gaur egungo argazkia nazioartekotzearen arloan?** Mondragon Unibertsitatearen lehentasun estrategikoen artean,

mundura irekitako unibertsitate globalaren izaera sendotzearen helburua definitu dugu, eta argi eta garbi nazioarteko izaera areagotu zaigula esan dezakegu.

Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko 1.500 ikasle inguruk parte hartzen dute unibertsitatetik eskaintzen ditugun mugikortasun programa desberdinetan. Horrez gain, mugikortasun-programa klasikoez gain, gure unibertsitateak mugikortasun-programa laburrak edo intentsiboak ere eskaintzen ditu, ikasleek ingurune global batean jarduerak eta proiektuak garatzeko aukera izan dezaten. Azken urteotan, adibidez, bataz beste, nazioarteko esperientzia eskuratu duen graduko ikaslegoa %52koa izan da. Horrek ere badu aitortza, 2020 urtetik, Mondragon Unibertsitatea estatuko bigarren unibertsitatea baita ikasleen mugikortasunean *U-multirank*-en arabera. Gainera, Mondragon Unibertsitatean urtero ehunen bat trukeko ikasle jasotzen dira atzerriko *partner* unibertsitateetatik, gehien bat Frantzia, Mexiko, Turkia edo Italiatik adibidez. Tituludunentzat ordea, Global Training programan ere parte hartzen dugu.

Ikasleei eskaintzen zaizkien mugikortasun programez gain, mugikortasun programak eskaintzen dizkiegu langileei, Erasmus+ Staff Mobility programaren barruan. Programa honen baitan langileagoari nazioarteko erakundeetan egonaldi laburrak egiteko aukera eskaintzen zaie, formazio, ikerketa edo irakaskuntza lanak egiteko.

Mondragon Unibertsitatean ere baditugu urtero gurekin gradu, unibertsitate master eta doktorego programa osoak egiten dituzten nazioarteko ikasleak. Adibidez, 2022-2023 ikasturtean, 150 nazioarteko ikasle ditugu Mondragon Unibertsitatetik eskaintzen ditugun graduak, unibertsitate masterrak edo doktorego programa burutzen.

**Esan daiteke beraz, egungo egoera oparoa dela. Proiektu konkreturen bat nabarmenduko zenuke?** Asko dira nabarmentzeko modukoak baina aipatu nahi nuke nazioartekotasuna Mondragon Unibertsitatean ez dela oraingo kontu bat.

Adibide bezala, Mondragon Unibertsitateak abian jarri zuen nazioarteko lehenengo proiektua 70eko hamarkadan abiatu zen Goier izan zen. Goi Eskola Politeknikoak bideratu zuen eta horren baitan, lehenengo ikasleak atzerrira joateko aukera izan zuten beraien ikasketen atal bat burutzera.



> Bidean zehar suertatutako erronkak talde lanean gainditu ditugu”

2009 urtean, berriz, MEI (Mondragon Educación Internacional) sortu genuen Korporazioarekin eta Alecop-ekin batera, Unibertsitatea eta bere hezkuntza eredua nazioartean zabaltzeko.

Horien ondoren, hainbat eta hainbat jarri dira martxan eta aipatuko nituzke adibidez, 2017an Mondragon Unibertsitateko International Days-en lehen edizioa antolatu genuela, eta bertan gure mugetatik kanpo datozen hezkuntza arloko irakasleek, ikerlariek eta administratzaileek parte hartzeko aukera dutela, gure errealitatea kanpokoei erakutsi eta nazioartekotzeari hausnartzeko asmoarekin.

Esanguratsua den beste proiektu bat 2019an martxan jarritako Gira Mundo programa da, Brasileko Paraíba Estatuko Hezkuntza Idazkaritzarekin batera. Honen bitartez Oinarrizko Irakaskuntzako Estatu Sareko ikasle, irakasle eta zuzendariei nazioarteko hezkuntza-sistemetan murgiltzeko aukera ematen diegu, dagoeneko, 72 irakasle jasoz.

Horrez gain, enpresa arloari begira ere egin dugu gure aportazio txikia, Txekiar Foroaren aktibazioarekin, MONDRAGONeko kooperatiba eta herrialde horretako erakundeen arteko lankidetza-hitzarmenak sinatuz.

Haue zgain, Erasmus+ programaren barruan garatu den ApprenticeshipQ eta martxan dagoen InclusiPHE proiektuak aipatuko nituzke. Lehena ikaskuntzen kalitatea hobetzeko kudeaketa-tresnak garatzera bideratua dago, eta bigarrenaren helburua Goi Mailako hezkuntza erakundeen politikak, mekanismoak eta praktikak hobetzea da, ikasle ez-tradizionalen parte-hartze inklusiborako.

Azkenik, Erasmus+ European Universities Innitiative deialdiaren barruan, EU4DUAL (Ikasketa Dualen Unibertsitate Europarra) sortzeko Mondragon Unibertsitateak eskuratu berri duen proiektua ere nabarmendu behar dugu. Izan ere, unibertsitate partzuergo honen liderra Mondragon Unibertsitatea izango da. Proiektu honen helburua nazioarteko Hezkuntza Duala bultzatzea da, ikasle, akademiko eta enpresen elkarlana sustatuz Europa mailan dauden erronkak erantzuteko: klima-aldaketa, deskarbonizazioa edo digitalizazioa adibidez.

**Urte hauetan une zailei ere aurre egitea tokatuko zitzaizun.** Zalantzarik gabe pandemia izan da erronkarik handiena. Pila bat ikasle atzerrian genituen une hartan (Europa, Japonia, AEB, Australia, Peru, Mexiko…) eta egun batetik bestera beraien itzulera kudeatu behar izan genuen. Krisi kabinete bat osatu genuen unibertsitate mailan eta guztion elkarlanari esker lortu genuen ikasleak bueltan ekartzea edo haien mugikortasunetan sortutako inpaktua ahalik eta txikiena izatea, prozesuan zehar beraien segurtasuna bermatuz. Behin hau lortuta, ikasturtea arrakastaz bukatzea zen hurrengo erronka, aurreikusita zeuden ikasgaiak online bukatu eta martxan zeuden proiektuak eta praktikak aurkezteko modua aurkituz.

Pandemiak hurrengo ikasturtean ere, 2020-2021ean, eragin handia izaten jarraitu zuen. Muga asko itxita zeuden oraindik eta unibertsitate askok ikasgaiak online ematen



jarraitzen zuten. Hala eta guztiz ere, esfortzu handiz aurreikusitako ikasleen %70a bidaltzea lortu genuen.

Pandemiaren nazioarteko kudeaketaz oso harro nago egia esan, Mondragon Unibertsitateko Nazioarteko Taldeak egindako esfortzu itzelaz batez ere. Orain zorionez egoera normalizatu dela esan dezakegu.

**Mondragon Unibertsitatea gaur egun nazioartean erreferente bat dela uste duzu?** Oraindik badago lana egiteko. Enpresen nazioartekotzean laguntzea adibidez gure helburu estrategikoetako bat da, eta ikasketak egitera bidaltzeaz gain, ikasleak nazioarteko plan profesionaletan txertatzen asmatu behar dugu.

Ildo horretan, gure outgoing ikasleek nazioarteko ingurune batean trebatzen jarraitzeko eta aldi berean nazioarteko esperientzia bat izateko aukera dute, gure komunitatea nazioartean hedatuz.

Horretaz aparte, orokorrean esango nuke nazioartean ondo ikusiak gaudela, batez ere kanpoan ez daudelako hain ohituta Learning by doing metodologiara edo talde lanera. Orokorrean, gure indarguneez kontziente izanik erronka berriak gainditzen asmatu behar dugu.

**Zure aroa bukatzear dela, zer opa diozu zure ondorengoari?** Tira, Jaione Iriondo nire lankidea da departamenduan, eta egunero ikusiko dut, baina bereziki zorte ona opa nahi diot. Erronka oso polita du aurretik.

# El proyecto HeartForm avanza según lo previsto

TEKNOROT AUTOMOTIVE, LA UNIVERSIDAD DE HACETTEPE, MONDRAGON UNIBERTSITATEA Y ELAY, ENTIDADES COLABORADORAS DEL PROYECTO HEATFORM, VALORAN POSITIVAMENTE EL AVANCE REALIZADO



HeatForm es un proyecto de investigación de carácter colaborativo e internacional.

**Escuela Politécnica Superior |** El proyecto HeatForm tiene como objetivo potenciar el uso de materiales de aceros de alta resistencia (AHSS) en el diseño y la fabricación de piezas para la industria del automóvil. Además, pretende hacerlo sin aumentar la demanda de energía de los procesos de fabricación. Se trata de un proyecto de colaboración internacional, financiado por el Cluster SMART Eureka, TUBITAK en Turquía y CDTI en España, y en el que participan las empresas Teknorot Automotive y Elay, en colaboración con la Universidad de Hacettepe y Mondragon Unibertsitatea.

### Reinventar la industria de la estampación

HeatForm es un proyecto que apuesta por el uso de materiales de alta resistencia dirigidos al sector de la automoción. Para mitigar las dificultades a la hora de transformar estos nuevos materiales, se pretende calentar los materiales de partida a temperaturas suaves, sin que haya una pérdida de propiedades, y aumentar así la ductilidad de los mismos. Mondragon Unibertsitatea, junto con Elay, participa en los paquetes de trabajo donde se desarrollará el proceso de corte fino asistido por calor. El objetivo de este nuevo proceso, que no existe a nivel industrial, es la reducción de los esfuerzos de corte aumentando su calidad. Esto permitirá procesar materiales de alto límite elástico, a la vez que se reducen los espesores necesarios en pieza final, consiguiendo así un aligeramiento de los componentes.

El desarrollo del nuevo proceso tiene asociados grandes retos tecnológicos, como el empleo de materiales especiales en los utillajes de corte, una mejora del diseño de los mismos y desarrollar una formulación de aceite adecuada para altas temperaturas y altas cadencias de fabricación.

### Acuerdo de colaboración

HeatForm se enmarca dentro del acuerdo de colaboración que firmaron en primavera Mondragon Unibertsitatea y Elay. La industria de la automoción apuesta por los materiales de alta resistencia con el objetivo de poder utilizar chapas más delgadas, reduciendo así el peso de los vehículos y mejorando su eficiencia energética. Actualmente dentro de esta colaboración se ha lanzado una tesis doctoral.

**HeatForm es un proyecto que apuesta por el uso de materiales de alta resistencia dirigidos al sector de la automoción.**

# Primer curso del Grado LEINN en Málaga

LA LLEGADA DEL GRADO SE ENMARCA DENTRO DEL PROTOCOLO DE COLABORACIÓN FIRMADO CON EL AYUNTAMIENTO DE MÁLAGA PARA POTENCIAR LA CIUDAD COMO UN ECOSISTEMA URBANO DE INNOVACIÓN Y EMPRENDIMIENTO.



El grupo de LEINN Málaga se muestra motivado.

**Facultad de Empresariales |** El 19 de septiembre, comenzó de forma oficial el primer curso del Grado Oficial en Liderazgo Emprendedor e Innovación (LEINN) de la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea y TeamLabs, su laboratorio de aprendizaje, en Málaga; concretamente, en el número 34 de la calle Beatas, en pleno centro de la ciudad.

Con la llegada del Grado LEINN a Málaga, se potencia también la atracción de talento desde otros lugares; haciendo de Málaga un lugar atractivo para estudiar y emprender. De los alumnos y alumnas matriculados en el Grado LEINN de Málaga, el 40% son de Málaga capital y el 60% restante son de otras provincias andaluzas, de otros puntos del país (como Canarias y Galicia) y de otros lugares del mundo (como Ecuador). Sumando los ocho laboratorios que tiene en marcha la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea, han comenzado el grado LEINN este mes alrededor de 400 jóvenes en sus diferentes laboratorios en Oñati, Irún, Bilbao, Madrid, Barcelona, Málaga, Valencia, Shanghai y Corea.

### Organización de *bootcamp*

Además, coincidiendo con el inicio de LEINN en Málaga se ha celebrado Hackea Málaga, *bootcamp* gratuito organizado entre el 10 y 26 de octubre por TeamLabs, Mondragon Unibertsitatea y la tecnológica Sngular, junto a 42 Málaga Fundación Telefónica, y con la colaboración de Demium Startups, finalizando con la presentación de ocho proyectos reales que aportan soluciones a la emergencia climática.

Esta actividad ha contado con la financiación y apoyo del Ayuntamiento de Málaga, dentro del protocolo de colaboración firmado entre Mondragon Unibertsitatea y TeamLabs con el consistorio.

# Ekintzailetza saria jaso du Robtrusionek

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK ETA IRURENA GROUPEK ELKARREKIN GARATZEN ARI DIREN PROIEKTUA TORIBIO ECHEVERRIA SARIETAN AITORTUA IZAN DA. IKEKERTA POROIEKTU BAT BEZALASA MARTXAN AJRRI ZENA ZAZPI PERTSONEK OSATUTAKO *STARTUP* BAT DA GAUR EGUN



Robtrusion osatzen duen taldeak pozik jaso du saria.

**Goi Eskola Politeknikoa** | Robtrusion Irurena Group eta Goi Eskola Politeknikoaren arteko ekintzailetzarako lankidetza proiektua da eta moldetik kanpoko ultramore bidezko pultrusioan espezializatuta dago.

Robtrusion startup industriala bi erakunde hauek duten hamar urte baino gehiagoko elkarlanaren ondorioa da, eta Toribio Echeverria saria jaso izanak ibilbide honi aitortza zuzena eskaintzen dio. Horrez gain 10.500 euroko dirulaguntza eta bideragarritasuna aztertzeko laguntza programak zein ekintzailetzaren eta industriaren arloko jardunaldi eta prestakuntzetarako izen emateko aukera ematen dio proiektuari. Sari honek bultzatu eta aitortu nahi dituen baloreak: ekimena, berrikuntza, ekintzarako gaitasuna, sormenerako ahalmena eta enpresak garatzeko kemena dira berrikuntza teknologikoari arreta berezia ipiniz.

### Proiektuaren egoera

Orain arte egindako ikerketen arabera, ontzigintza sektorea da Robtrusionen teknologia berritzaile horretarako egokiena, ontzien profil kurbatuak modu automatizatuan fabrikatzeko aukera ematen baitu. Izan ere, Robtrusion FIBRE4YARDS proiektu europarrean dago, ontzigintzan teknologia berriak ezartzea helburu duen proiektuan.

Lehen makinak unibertsitateko laborategian instalatu dira jada eta epe labur eta ertainera erronka izango da teknologia prestatzea merkatura ahalik eta lasterren jauzi egiteko.

### Ikerketatik *startup*era

Egindako lanetatik abiatuta, moldeaz kanpoko pultrusio ultramorea ikertzen duen lantaldeak ikusi zuen ikerketa-lerroak negozio-lerro berri bat bihurtzeko ahalmena zuela, eta, beraz, Robtrusion startupa sortu zen behar horri erantzuteko.

Robtrusion bost profesionalek eta bi doktoregaik osatutako startup bat izango da, eta gaur egun prozesuaren eta fabrikatutako osagaien ziurtapenean murgilduta dago, eta aldi berean, aktiboki jarraitzen du merkatu-azterketarekin. Era berean, proiektua bideragarriago egiteko Irurena Group du bidelagun. Enpresa honek esperientzia handia du zurarentzako estalduren ontze ultramorean, eta Goi Eskola Politeknikoarekin izandako lankidetzari esker, bere jarduera dibertsifikatzea lortu du, moldez kanpoko pultrusio ultramorearen bidez. Gaur egun, pieza eta prozesuen ziurtapenean murgilduta dago eta merkatuan duen posizioa aztertzen ari da. Bertan, sektore nautikoa egokitzat jotzen da, teknika berri honek profil kurbatuak fabrikatzeko eskaintzen dituen aukerak direla eta, berak egindako makina bati esker.

**Robtrusion FIBRE4YARDS proiektu europarrean dago, ontzigintzan teknologia berriak ezartzea helburu duen proiektuan**

# Ikastetxeei zuzendutako markagintza jardunaldia

'HAU DA MARKA! NOLA BEREIZTU ZURE IKASTETXEAREN MARKA?' JARDUNALDIAN, PARTE-HARTZAILEEK JORRATU DITUZTE MARKAK IKASTETXEETAN DUEN GARRANTZIAREKIN LOTUTAKO HAINBAT ALDERDI.



Jardunaldia Eskoriatzako campusean egin zen.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | Urriaren 27an, hezkuntza, komunikazio eta marka uztartzen dituen jardunaldia antolatu zuten Eskoriatzako campusean: *Hau da marka! Nola bereiztu zure ikastetxearen marka?*Jardunaldia parte hartu zuten Euskal Herri osotik etorritako ikastetxeetako arduradunak eta eskola horietako komunikazio arloko langileak.

Agurtzane Elkoro AZKko marka eta komunikazio estrategia arduradunaren esanetan, “egun, edozein ikastetxerentzat ezinbestekoa da marka indartsu bat izatea; eta marka horren baloreekiko koherente jokatzea, ez bakarrik besteengatik desberdintzeko baizik eta ikastetxea posizionatu eta indartzeko”. Amaia Pavon Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Komunikazio arloko proiektu eta transferentzia arduradunak gehitu du, hezkuntza erakundeak eta ikastetxeak arduraz bizi dituztela komunikazio gaiak: “Fakultatearen asmoa da transferentzia zerbitzu integrala eskaintzea: irakasle izango direnak eta dagoeneko diren profesionalak formatzea eta ikastetxeetako komunikazioaren ardura duten profesionalei laguntzea”.

### Markagintza ikuspegi ezberdinetatik

Jardunaldiak bi zati izan ditu. Lehenean, Ivan Díaz Gonzalez markagintzan aditua eta marka aholkulariak hitzaldia eskaini du. Bere solasaldian, azaldu ditu hezkuntza erakunde baten marka hobetzeko estrategiak. Ondoren, hiru kasu arrakastatsu jorratu dira: San Fermin Ikastolak, Oñatiko BHI-k eta Tolosako Herrikide ikastetxeak egindako rebranding-a.

# Ikastetxeetako igarobideak hobetzen

GOIESKOLA DEBAGOIENEKO HERRI ESKOLEN ELKARTEAREKIN BATERA ANTOLATUTAKO JARDUNALDIAREN HELBURUA IZAN DA AZALTZEA AZKEN BI URTEOTAN IGAROBIDEAK HOBETZEKO EMAN DIREN URRATSAK.



Goieskola eskola publikoen elkartearekin batera antolatu zen "Igarobideak parte-hartze kultura eta garapen komunitarioaren norabidean" jardunaldia.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** |Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Oñatiko eta Bergarako eskola publikoekin batera, *Igarobideak parte-hartze kultura eta garapen komunitarioaren norabidean* jardunaldia egin zuen, Eskoriatzako campusean, irailaren 5ean.

Igarobideak dira egoera batetik besterako aldaketa prozesuak. Eskoletan ematen diren igarobide batzuk une puntualetara mugatzen dira, adibidez, etapa aldaketetara; beste igarobide batzuk, ordea, etenik gabekoak eta orokorragoak izan ohi dira. Igarobideek eragin handia dute ume eta familien bizitzetan, aldaketa biopsikosozialak gertatzen direlako prozesu horietan.

**Igarobideak dira egoera batetik besterako aldaketa prozesuak.**

Irati Sagardiak, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikerlariak, esan duen bezala, "igarobideaz hitz egiterakoan, momentu zehatzak aztertu izan dira, baina etenik gabeko prozesu konplexu bezala ulertu behar ditugu".

**Inklusibitatea jorratuz**

Jardunaldian azaldu duten bezala, eskoletan prozesu horiei behar besteko garrantzia ematen ez zaiolakoan, Mondragon Unibertsitateko Zehar eta Hazitegi ikertaldeek igarobideak hobetzeko eta eskola inklusiboaren bidetik, Bergarako eta Oñatiko eskola publikoekin batera, prozesu parte-hartzailea jarri zuten abian orain dela bi ikasturte: Guztion ahotsa egitasmoa. Jardunaldian aurkeztu dituzte egitasmo horren lehenengo emaitzak.

# Por una aeronáutica sostenible

**Escuela Politécnica Superior** | EKOPROP es un proyecto de investigación de la convocatoria Elkartek que se centra en las tecnologías capacitadoras para una propulsión inteligente y sostenible del avión cero emisiones. Se trata de un proyecto colaborativo entre la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea, Tecnalia, UPV/EHU y el CTA, y busca el desarrollo de las tecnologías necesarias para hacer frente a los nuevos retos marcados por la unión europea para el transporte aéreo. Estos retos, establecidos a través de Clean Aviation, tienen como objetivo alcanzar cero emisiones de gases de efecto invernadero para el año 2050, y para ello, es necesario investigar e innovar hacia motores de combustión de hidrógeno y biocombustibles. El proyecto EKOPROP pretende precisamente cubrir las primeras fases de esta transición.

**Una parte fundamental del proyecto**

El equipo de la Escuela Politécnica Superior que participa en el proyecto, más concretamente el grupo de investigación de Mecanizado de Alto Rendimiento, se encarga principalmente de tres tareas.

La primera de ellas es la de caracterizar los componentes híbridos y de densidad variables, para poder comparar el comportamiento de materiales fabricados por métodos convencionales e identificar las variables que más afectan al proceso de fabricación para así optimizar y asegurar la calidad de las piezas obtenidas. Esta tarea forma parte de un conjunto de tareas encaminadas a obtener componentes más ligeros y adecuados para el uso del hidrógeno como combustible.

La segunda consiste en el desarrollo de técnicas de postprocesado para componentes de nueva generación, con el objetivo de desarrollar y poner a punto un dispositivo de post-procesado mediante técnicas de *Drag finishing*.

Por último, la tercera tarea tiene dos variantes; una experimental y otra de simulación:

La simulación pretende conseguir un mayor conocimiento de la física de los problemas que se dan en las turbomáquinas con el objetivo de mejorar el diseño de nuevos productos y aumentar la eficiencia de los mismos. A partir de ahí el grupo de la Escuela Politécnica Superior desarrollará técnicas experimentales para medir estos fenómenos de contacto que servirán para validar los modelos con la simulación numérica.

El grupo de investigación de Mecanizado de Alto Rendimiento tiene una larga trayectoria en proyectos de investigación y transferencia en el sector aeronáutico. Su trayectoria les legitima para convertirse en una parte fundamental del proyecto EKOPROP, que está llamado a ser clave en el futuro sostenible de la industria aeronáutica.



Los participantes del proyecto EKOPROP.

# 360 talentos para la gestión

LA FACULTAD DE EMPRESARIALES DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA ARRANCA EL CURSO CON ALREDEDOR DE 360 NUEVOS ALUMNOS Y ALUMNAS EN EL ÁMBITO DE TALENTO PARA LA GESTIÓN, CORRESPONDIENTES A ESTUDIOS DE GRADO Y MÁSTER



Alumnos y alumnas de gestión del talento de la Facultad de Empresariales.

**Facultad de Empresariales |** 360 nuevos alumnos y alumnas de la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea han comenzado sus grados y másteres en el ámbito de talento para la gestión. El alumnado se corresponde con dos grados universitarios, el grado en Administración y Dirección de Empresas (myGADE) (que este año ha duplicado sus plazas en Bilbao) y el grado en Business Data Analytics (BDATA).

El grado en Administración y Dirección de Empresas ha comenzado este año por primera vez con todos sus alumnos y alumnas cursando la modalidad DUAL (algunos comenzarán su experiencia dual este primer curso, mientras que otros lo harán a partir del tercer curso) en los tres campus que la facultad tiene en Oñati, Bilbao e Irún. Por otro lado, este año contarán con los primeros egresados en Business Data Analytics, ya que este año se ha incorporado la cuarta generación de *bdaters*.

### Un nuevo máster universitario

En lo que se refiere a los másteres universitarios, a los que ya venía ofreciendo la facultad en temas de marketing digital, finanzas y contabilidad, talento e internacionalización, este año se ha sumado un máster universitario más en data analytics.

Al ámbito de talento para la gestión habría que sumarle otros 400 alumnos y alumnas del ámbito de emprendimiento que también se encuentran en los distintos laboratorios, sumando así alrededor de 760 nuevos alumnos y alumnas de grado y másteres universitarios en la Facultad.

## Arzak, patrono de honor

EL CHEF DONOSTIARRA HA SIDO RECONOCIDO POR SU CONTRIBUCIÓN A BASQUE CULINARY CENTER, POR SU PAPEL EN EL NACIMIENTO DE LA ENTIDAD ASÍ COMO LA PROMOCIÓN Y EVOLUCIÓN DE LA GASTRONOMÍA VASCA

**Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas |** Juan Mari Arzak ha sido nombrado patrono de honor de Basque Culinary Center en el marco del “Encuentro de la Gastronomía Vasca”. El cocinero donostiarra ha recibido un emotivo homenaje en agradecimiento a su contribución a la entidad del que ha sido patrono fundador desde 2011, y que reconoce también su papel clave en el nacimiento de Basque Culinary Center.

### Un emotivo homenaje

Durante el homenaje, más de 40 estudiantes arroparon al chef donostiarra sobre el escenario e hicieron entrega del galardón que le acredita como patrono de honor. Fue un momento cargado de simbolismo, donde la nueva hornada de cocineras y cocineros quiso agradecer a Arzak su implicación y generosidad a la hora de compartir su legado. Es la segunda vez que alguien obtiene esta distinción después del nombramiento de Luis Irizar en 2012, si bien es la primera en la que un patrono fundador recibe dicho reconocimiento. Al homenaje acudieron chefs patronos como Andoni Luis Aduriz, Elena Arzak, Martin Berasategui, Diego Guerrero y Pedro Subijana, además de empresas e instituciones como Fagor, Eroski, Martiko y Azti.

El acto tuvo lugar en el auditorio de Basque Culinary Center y contó con la participación de Joxe Mari Aizega, director de Basque Culinary Center; Vicente Atxa, presidente del Patronato; Eneko Goia, alcalde de Donostia-San Sebastián; Bittor Oroz, viceconsejero de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco; Jabier Larrañaga, diputado de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Guipúzcoa; y Guille Viglione, presidente y director Creativo Ejecutivo de Dimensión. Mikel Urdangarin puso el broche final al acto con una emotiva actuación musical, elevando el simbolismo y el sentido de respeto que, como comunidad, se le tiene a Juan Mari Arzak.



Juan Mari Arzak, el nuevo patrono de honor.

# Urteurrena musikaz ospatzen

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 25. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAREN BAITAN KONTZERTUAK ANTOLATU ZIREN ITURRIPEKO CAMPUSEAN URRIAREN 14AN. MUGI PANDEROA, SKAKEITAN ETA ZETAK TALDEAK IZAN ZIREN PROTAGONISTA BERTAN.



Zetak taldeko Pello Reparaz kontzertuko uneetako batean.

Goi Eskola Politeknikoa | 2022-2023 ikasturtea berezia izango da Mondragon Unibertsitatea osatzen duen komunitate osoarentzat. Unibertsitatearen 25garren urteurrena dela eta, ospakizunez beteriko ikasturtea ari da izaten hau, eta dinamika honen baitan antolatutako tamainako ekitaldien artean, ziur aski jendetsuenetarikoa izango dena egin zen joan den urriaren 14an. Iturripeko Campusean musika jaialdia antolatu zen, Mugi Panderoa, Skakeitan eta Zetak taldeen eskutik. Kontzertu hauek Mondragon Unibertsitateak dituen campus guztietako ikasleentzat eta baita ere bertaratu nahi zuen beste edonorentzat antolatu ziren, eta publikoaren erantzuna aparta izan zen, bai kopuru aldetik eta baita ere partaidetza eta jarrera aldetik.

**Dantzaldi luzea**

Mugi Panderoa taldeak eman zion hasiera 18:30tan iluntze musikatu honi. Dantza giroan jendea geroz eta gehiago hurbiltzen joan zen horretarako prestaturiko esparrura. Ondoren, Skakeitanen txanda iritsi zen. Donostiako taldea bere ibilbideari bukaera emango dion biran murgildua dago, eta bere zalegoak ez zuen doinu alai hauetaz gozatzeko aukera galdu nahi izan. Taldearen jarrera ere sutsua izan zen, bertaratutakoei ikuskizunik onena eskaintzeko gogoarekin.

Jada gaua gailendua zegoenean igo zen Zetak taldea oholtzara, ekitaldiari amaiera borobila emanez. Pello Reparazen taldea gaur egun euskal eszenan ari den talde garrantzitsuenetariko bat da, eta publikoak gogo handiz abestu zituen taldearen kantak.

Iluntze gogoangarri bat bizitzeko aukera izan zuten bertaratutako guztiek, eta taldeen jarrera paregabeak ere horretara lagundu zuen. Eskerrik asko guztioi!



Skakeitan taldea zuzenekoan.

# Birziklapena hobetzeko taldea martxan

BITERI IKASTETXE NAGUSIKO ZENBAIT IKASLEK INGURUGIRO TALDEA SORTU DUTE, ESKOLEZ GAIN BERAIEN UNIBERTSITATE ESPERIENTZIA GIZARTEARI EKARPENAK EGINEZ OSATZEKO HELBURUAREKIN. TALDE HONEN PARTE DIRA ENERITZ SAGASTUME (INGENIARITZAKO IKASLEA) ETA BITERIKO DINAMIZATZAILEAK.

Goi Eskola Politeknikoa | **Nola sortu zan talde hau?** Batzordearen lehen bilera bat egin genuen Biterin birziklapena hobetzeko martxan zegoen proiektuaren berri emateko, eta honen faseak aztertu genituen. Argi geratu da proiektua aurrera ateratzeko ekarpenak beharrezkoak zirela.

**Zertan ari zarete?** Proiektu konkretu bat egitea dugu buruan, eta proiektu honen faseak definitu ditugu, denborak ondo kudeatze aldera Gantt diagrama bat garatuz. Horrela, proiektuaren lehen atal batean honen egungo egoera aztertuko da eta helburuak definitu. Bigarren atal batean hausnarketa fase bat egingo da, klasean egingo dituzten ariketa ezberdinak informazio iturri bezala erabiliko ditugularik.

Ondoren proposamen fasera igaroko gara, eta azkenik ikastaro, tailer edo kanpainaren bat prestatuko dugu (zehazteko dago oraindik). Egitura berria urtarrilean martxan jartzea da daukagun helburua.

**Zer izango da zehazki egitura berri hau?** Birziklapena hobetzea da gure helburu nagusia, eta horretarako arautegi berri bat martxan jarri behar dugula uste dugu.

Oraindik zenbait gauza definitzeke ditugu, eta hori da urtarrila bitartean egiteko dugun lana.

2024erako birziklapen tasa totala lortzea dugu helburu nagusitzat, eta hori bete ahal izateko urtez urte helburu txikiagoak jarri dizkiogu gure buruari, epe motzean egingarriagoak direnak.



Birziklapena lantzen dabilen taldea.

# 'Hemen gaude', proiektua, abentura bilakatuta

**IÑAKI GOIKOETXEA** ETA **MAIALEN LOPEZ** EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA ADITU TITULUAN SORTU PROIKTUA GAUZATU ETA 25.000 KILOMETROTAKO 'ROAD TRIP' KULTURALEAN MURGILDUTA DAUDE, HEGO AMERIKETAN ZEHAR EUSKALDUNEN URRATSAK JARRAITZEKO ASMOAREKIN.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Irailaren 25ean hasi zen Iñaki Goikoetxea eta Maialen Lopezenen abentura. Bata kazetaria eta kultur kudeatzailea, bestea abokatua, eta biak bidaiari amorratuak. Bien artean 50 herrialde baino gehiago bisitatu dituzte, baina orain arte ez dira Hego Ameriketan egon, eta jakinmin hori asetzeko jarri dute martxan ekimen hau.

Proiektuaren helburu nagusia sare sozialetan euskaldunen istorioak zabaltzea da, horretarako bideo eta edukiak erabiliz: euskara ikasleak, euskal etxeen inguruan dauden komunitateak, musikariak, dantzariak, kirolariak, irakasleak, artista eta sortzaileak, lankidetza langileak… Euskaldunok Hego Amerikan izan dugun eta gaur egun dugun presentzia kontatu nahi da, hemendik joandako emigranteen bizipenak berreskuratuz eta egon diren lotura historiko, sozial eta artistikoak aipatuz.

Zeharkaldia egin ahal izateko Euskal Herritik barkuz bidalitako 16 urteko kotxe txiki bat erabiliko dute, horrelako bidaia bat egiteko ondo prestatu den Nissan Micra bat. Ibilgailu honek Andeak gurutzatuko ditu, Patagoniako hegoalderaino jaitsiko da eta Amazoniako errepideak zeharkatuko ditu. Euskaldunekin lotura duten lekuak ezagutzeaz gain, natur gune, toki historiko, monumentu eta Munduko Gizateriaren Ondare diren tokiak bisitatuko dira.

**Bestelako abenturen jarraipena**

Iñaki Goikoetxeak euskal diaspora ezagutzeko aukera izan zuen orain dela urte batzuk 2012tik 2014ra Eusko Jaurlaritzaren Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan bekaduna izan zelako, eta Estatu Batuetako hainbat euskal etxetara bidaiatu zuen, eta lanean bukatu ostean baita 2015eko Boiseko Jaialdira ere. 2020-2021 kurtsoan Mondragon Unibertsitateak antolatzen duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren (EKT) graduondoaren 8. edizioan parte hartu zuen eta ikasketak bukatzeko proiektua *Hemen Gaude* sortzea izan zen, 2022ko martxoan defendatu zuen 82 orrialdeko lana. Orain proiektu horretan egiten zen planteamendua gauzatzeko unea iritsi da. Horretarako Maialen Lopezekin taldea sortu eta abenturan murgildu dira. abentura hau jarraitu ahal izateko sare sozial ezberdinetan postak publikatzen ari dira, Instagram, Facebook, Tik Tok eta Twitterren.



Abenturaren kartela.

Alumni

# Blanca del Noval, coautora del catálogo 'Silvestre'

LA ALUMNI DE BASQUE CULINARY CENTER HA SIDO PARTE DE LA CREACIÓN DEL NUEVO CATÁLOGO DE PLANTAS Y HIERBAS DE LA PENÍNSULA IBÉRICA, LLAMADO SILVESTRE.


Blanca del Noval posa con el libro 'Silvestre'.

**asque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas |** Blanca del Noval, alumni del Grado en Gastronomía y Artes Culinarias y actualmente chef e investigadora de BCC Innovation, es una de las autoras de 'Silvestre': la gastronomía de las plantas. Esta obra, elaborada con el apoyo de Basque Culinary Center, ofrece un vasto catálogo de plantas y hierbas silvestres de la península ibérica con el que invita tanto a curiosos como a profesionales de la restauración a salir a la naturaleza en busca de tesoros en una despensa insospechada, con el inmenso potencial para ser transformados en aportaciones gastronómicas de alto valor. Todo ello, partiendo del rigor de la ciencia y creatividad, aspectos que emana la gastronomía.

El objetivo de 'Silvestre' es el de ayudar al lector a entender la botánica desde una perspectiva gastronómica: aprender a clasificar las plantas desde una mirada culinaria; conocer las técnicas y elaboraciones que permitirán poner en valor las diferentes especies, así como dar consejos sobre su recolección y manejo.

**Un constante aprendizaje**

Blanca del Noval cuenta que la experiencia de participar en la redacción de 'Silvestre' ha supuesto para ella una evolución tanto personal como profesional. "Co-escribir 'Silvestre' ha sido para mí un constante aprendizaje. Trabajar de principio a fin en la creación de un libro me ha llevado a entender la complejidad que implica materializar un proyecto de este calado. Desde el trabajo de campo e investigación, hasta encontrar las palabras precisas para hacer llegar el mensaje a las y los lectores, con la incansable ayuda del editor". Además, confiesa que una vez tuvieron claro el contenido del libro, ha disfrutado muchísimo del proceso de conceptualización, pensando cómo contar las cosas a través de la fotografía y el diseño.

# Gimnasioak, itxurakeria eta ongizatearen arteko lehia

AZKEN URTEOTAN, GIMNASIO ETA FITNESS GELEN ERABILERAK HAZKUNDE NABARMENA IZAN DU, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN



Gimnasioen erabilerak goranzko joera nabarmena du.

**Kirola |** Kirol Instalazioetako Enpresaburuen Federazio Nazionalak (FNEID) helarazitako datuen arabera, Estatuko gimnasio guztien erabiltzaileen artean %10 nerabeak dira. Hori horrela izanik, orain arte bizitako eztandak tinko jarraitzen badu eta kirol erakundeek eginiko aurreikuspenak betetzen badira, etorkizunean, aipatutako ehunekoak hazkunde esanguratsua izan dezake. Horrenbeste nerabe erakartzearen arrazoi nagusien artean, osasuna hobetzeko nahiaz gain, gizarteak sortzen duen gorputz-eredu patroia jarraitzeko beharra eta sare sozialen itxurakeria ere, badaude.

Badakigu jarduera fisikoa egiteak, oro har, oso eragin positiboak dituela osasunean, ongizate fisiko, psikologiko eta soziala hobetzen baititu. Hala ere, kasu, jakitun gara, jarduera fisikoa modu desegokian eta inongo kontrol gabe egiteak kalte eta ondorio lazgarriak ere sor ditzakeela. Entrenamendu plangintza eraginkorra izan dadin, printzipio zehatz batzuk bete behar ditu, horien artean indibidualtasunaren printzipioak eta plataforma horiek ez dute inondik inora ezaugarri hori betetzeko bermerik eskaintzen.

**Ekimen ezberdinak martxanz**

Kirol Zerbitzutik, Zure kabuz izeneko atalaren barruan, aipaturiko erronka horiei erantzuna emateko makina bat ekimen dugu martxan. Besteak beste, Mondragon Unibertsitateko campus denetan gimnasio pribatuekin hitzarmenak ditugu sinatuta eta horrela, ikasleek kuota eta matrikulako prezioetan deskontuak dituzte. Honetaz gain, kanpus guztietako kiroldegi publikoetan abonatzeko diru laguntzak ere eskaintzen ditugu, gimnasioen erabilerez gain, beste kirol-praktika batzuk aurrera eramateko. Hitzarmen eta dirulaguntza horien jomuga nagusia ordutegi finko gabe gustuko kirol-pratikaz gozatzeko erraztasunak ematea da, zure kabuz kirola egiteko aukera zabaltzea, alegia. Gainera, Kirol Zerbitzutik era batera edo bestera sustatzen dugun kirol-praktika hori osasuntsua izan dadin, MU aktibo programaren bitartez, jarduera fisikoa egiten edo kirol probaren bat prestatzen ari den edonori kirol aholkularitza pertsonalizatua jasotzeko parada ere luzatzen diogu.

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzutik kirola eta jarduera fisikoa egiteko zenbait aukera eskaintzen ditugunez, gure komunitate osoaren bizi kalitatea hobetzeko bakoitzaren interes eta beharretara ahalik eta aproposen egokitzen gara. Aprobetxatu 22/23 ikasturteko programak eskaintzen dituen onurak eta jarraitu bizitza aktibo baterantz urratsak ematen.

# España Nación Emprendedora

REPRESENTANTES DE LA CORPORACIÓN MONDRAGON Y MONDRAGON TEAM ACADEMY PARTICIPARON EN EL EVENTO ORGANIZADO EN MADRID POR EL ALTO COMISIONADO PARA ESPAÑA NACIÓN EMPRENDEDORA.

**Facultad de Empresariales |** Se ha creado una nueva alianza con el objetivo de que todas las entidades del ecosistema emprendedor innovador en España trabajen con una visión única, el emprendimiento como motor de desarrollo económico del país. El evento cobró relevancia porque se visualizó la presentación oficial de una alianza formada por más de 200 entidades públicas y privadas, un proyecto de colaboración sin precedentes.

**Participación activa de LEINN**

Martín Beitia Salaberria, que actualmente dirige el equipo de Innovación, Diseño e Investigación en el área de Transformación de Iberia, es egresado de LEINN, y participo en el evento. A su vez, Marina Estrada Murcia, también egresada de LEINN, fue otra de las participantes en el encuentro. Tanto Martín como Marina resaltan la importancia que formar parte de LEINN ha tenido en el desarrollo de su perfil innovador, y Marina particularmente pone el foco en “las habilidades adquiridas para entrar en el Alto Comisionado para España Nación Emprendedora”



# Arizmendiarrietaren

## TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

**“Baliorik galtzen ez duen ondare eta balore bakarra gizakien prestakuntza da: Formazioa.”** (Gogoetak 182)

ES

**“El único patrimonio y valor que no tiende a desvalorizarse es el de la capacitacion de las personas: la Formación.”** (Pensamientos 182)


ikasi edo lan egin?
nire aukera da!
garapen profesionala
ULMA
ULMA AUKERATUZ GERO, BIAK EGIN DITZAKEZU
ULMA

# ZURETZAT EGINA.
# PLANETARENTZAT EGINA.

Eskatu zure LABORAL Kutxa gazte-txartela, **% 99 birziklatutako materialez egina.**








- 26 urtez beherakoentzako zordunketa-txartela, jaulkipen- eta mantentze-komisiorik gabe.
- Txartel pertsonalizagarria: Emaiozu zure estiloa txartelari, gehien gustatzen zaizun irudiarekin. **300 baino gehiago** dituzu aukeran.
- LABORAL Kutxak **ez du komisiorik kobratuko** atzerriko kutxazainetan, hilean zordunketa bidez dirua ateratzen den lehen aldian. Kutxazainaren jabe den erakundeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).
- Zure mugikorrarekin ordaindu ahal izango duzu, txartela **LK Payri, Google Payri, Apple Payri** edo **Garmin Payri** lotzen badiozu.

**Abantaila guztiak ezagutzeko, informa zaitez hemen: laboralkutxa.com/eu/gazteak**

Deskargatu App-ak

Banca Online LK Pay

LABORAL kutxa